



Lehenengo aldiz herritar batek eraman du Beasaingo Udalak euskal literatura eta sormena idazle gazteen artean bultzatzeko sortutako saria

Edizio honetara 16 lan aurkeztu dira horietatik 9 emakumeenak eta 7 gizonenak

Iazko irabazle Erika Elizarik “Zendabalitz” lana entregatu eta sariaren bigarren zatia jaso du

XXII. Igartza literatura sariaren edizioko irabazlea Irati Goikoetxea Asurabarrena 34 urteko beasaindarra izan da *Herriak ez du barkatuko* proiektuarekin. Sariketa honen ibilbidean lehenengo aldia da herritar batek saria jasotzen duena.

Igartzako jauregian egindako aurkezpenean hala nabarmendu du Beasaingo

XXII. Igartza literatura bekaren saria Irati Goikoetxea herritarrarentzat

Azken eguneratzea: Astearte, 10 Iraila 2019 20:02

Argitaratua: Astearte, 10 Iraila 2019 20:02

Udaleko kultura zinegotziak Xabier Matarranzek. Irati zoriontzeaz gain, bere poza agertu du Beasainen ematen den idazle gazteentzako sortutako literatura beka hau beasaingar batek jaso duelako. Edizio honetako epaimahaia Ana Jaka, Igor Estankona eta Garazi Kamiok osatu dute.

Aurkezpen ekitaldian Elkar-en izenean Xabier Mendiguren, CAFenean Joxe Begiristain eta udalaren aldetik Xabier Matarranz izan dira. Irati Goikoetxeak proiektuarengatik 6.000 euroko sariaren erdia eta garaikurra jaso ditu eta urte beteko epea izango du liburua amaitzeko. Irati Goikoetxea Asurabarrena matematikako irakaslea da eta betidanik lotura izan du bertsolaritza eta euskal literaturarekin. Beasaingo irakurle taldeko partaide da eta hainbat kultur ekitaldietako partaide ere. Egun, Nafarroako gobernuan lanean dihardu bizikidetzarloan. Hain zuzen ere, gai horren inguruan idatzi du proiektua.

Erika Elizariaren “Zendabalitz” liburua amaituta

Ekitaldi berean, iazko irabazleak, Erika Elizari Salvadorrek, “Zendabalitz” lana entregatu ostean diru sariaren bigarren zatia jaso du eta datorren urteko otsailean aurkeztuko da liburua.

Igartza Literatura beka saria Beasaingo Udalak idazle berrien sormena bultzatzeko helburuarekin sortu zuen Elkar argitaletxea eta CAFen laguntzarekin. XXII. edizioa izan den honetan, 16 lan aurkeztu dira. Horietatik 9 emakumeenak eta 7 gizonezkoenak. Aurkeztu diren lanen jatorriari dagokionez 13 gipuzkoarrak, 1 nafarra, 1 bizkaitarra eta 1 arabarra. Ez da iparraldekorik egon.

Orain arteko irabazleak:

LIBURUA	Igartza	URTEA	Argitalpen	EGILEA
	Literatura Bekaren edizioa		urtea	
CONNEMARA GURE I. BIHOTZETAN		1998	2000	Julen Gabiria Lara
EGUN DENAK EZ II. DIRA BERDIN		1999	2001	Xabier Etxeberria Garro
KORAPILOAK II.		1999	2001	Jasone Osoro Igartua
ORTZADARRA SUTAN	III.	2000	2002	Fernando Morillo Grande
VAN´T HOFFEN IV.	IV.	2001	2003	Unai Elorriaga

XXII. Igartza literatura bekaren saria Irati Goikoetxea herritarrarentzat

Azken eguneratzea: Asteartea, 10 Iraila 2019 20:02

Argitaratua: Asteartea, 10 Iraila 2019 20:02

ILEA				Lopez de Letona
HAN GOITIK	V.	2002	2004	Julen Gabiria
ITSASOA				Lara
IKUSTEN DA				
KARONTE	VI.	2003	2005	Asel Luzarraga
				Zarrabeitia
AMAREN ESKUAK	VII.	2004	2006	Karmele Jaio
				Eiguren
LILE	VII.	2004	2006	Peru Magdalena
				Arriaga
AULKI BAT	VIII.	2005	2007	Uxue Alberdi
ELURRETAN				Estibaritz
ERO	IX.	2006	2008	Jon Martin
				Etxebeste
ETXETIK IRTEN	X.	2007	2009	Katixa Agirre
GABE				Migueluez
NORA EZ	X.	2007	2009	Irati Jimenez
DAKIZUN HORI				Uriarte
HAGINA	XI.	2008	2010	Eider
				Rodriguez
				Martin
HILTZAILEA	XII.	2009	2011	Uxue Apaolaza
				Larrea
GERIZPEKO	XIII.	2010	2012	Garazi Camio
PANPINAK				Anduaga
INTERRAIL	XIV	2011	2013	Goiatz
				Labandibar
				Arbelaitz
MAMUAK	XV	2012	2014	Danele
				Sarriugarte
				Mochales
EZ EGIN TIRO	XVI	2013	2015	Mikel Ayllon
ANBULANTZIEI				Corral
HAUTS	XVII	2014	2016	Unai Villena
HAJETATIK				Camarero
KAFE BETEA	XVIII	2015	2017	Kattalin Miner
				Perez
KARRAMARROA	XIX	2016	2018	Ekaitz
TROSTAN				Goienetxea
				Cereceda
PAPEREZKO	XX	2017	2019	Miren Amuriza
TXORIAK				Plaza
ZENDABALITZ	XXI	2018		Erika Elizari
				Salvador
HERRIAK EZ DU	XXII	2019		Irati
BARKATUKO				Goikoetxea

XXII. Igartza literatura bekaren saria Irati Goikoetxea herritarrarentzat

Azken eguneratzea: Asteartea, 10 Iraila 2019 20:02

Argitaratua: Asteartea, 10 Iraila 2019 20:02

Asurabarrena